

# HIBRIDOAK

Deskribapena: Lehenengo arabisagarraren imajinak ageri dira, ondoren, animalia desberdinenak ikus daitezke eta, azkenik, auto mota bitxiak ikusten ditugu.

Kike (off ahotsa): Hau arabisagar bat da, pomelo bat, laranja eta panpelmusa fruituen arteko hibridaziotik sortutako fruitua. Hau berriz, mando bat da, asteme eta zaldi batek edo, astar eta behor baten arteko hartu emanetik sortutako hibridoa. Ligrea, lehoia eta tigrea, zebrastoa, zebra eta astoa... Guk uste baina hibrido gehiago daude munduan. Baina adi, zebra-muskuilua, armiarma-tximinoa eta mailu-arraina ez baitira hibridoak. Auto hibridoak ere badira, gasolinazko motorra eta motor elektrikoa uztartzen dituztenak. Eta, baita bitxiagoak ere, anfibioak esaterako, nonahi gora eta behera ibiltzeko sortuak. Eta jakina, hizkuntzen artean, hibridazioa ere gerta daiteke, neurrian dago kontua baina!